

MUko ikasle bat saritua izan da Gipuzkoaren kudeaketari egindako ekarpenengatik.

2010/09/21

Jon Iraola Goiburu, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikaslea, saritutako unibertsitateko 10 ikasletako bat izan da Gipuzkoaren kudeaketari egindako hobetzeko ekarpenengatik. Ikasleak proiektu berritzaileak garatu dituzte atzerriko unibertsitateetan (Europa eta Amerika) bizitako esperientzietan oinarrituta, ondoren Gipuzkoan aplikatu daitezten.

Aurkeztutako 70 lanetatik 10 aukeratu dira "Altuning pro Gippuzkoa"-ren lehen edizio honetan.

Jon Iraolak bi ideia aurkeztu ditu. Lehenengoa "Jeunes Ambassadeurs" (gazte enbaxadoreak) programari buruzkoa da. Programa honen helburua atzerriko ikasleen eta bertako enpresetako gidarien arteko harremana sortzea da.

Bigarren ideia garraio pribatuaren erabilera arrazionalizatzerara bideratuta dago, horretarako Frantzia aplikatu diren hiru esperientzia berritzaile aurkeztu ditu: covoiturage, L'autoapartage eta nekazaritza-inguruetara egokitutako taxi zerbitzu bat.

